



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

KONTROLIK GABEKO ABEREA BATZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

2012

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 106. Artikuluak, Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15 eta 18 artikuluek, eta Tasen Legezko Araubidea aldatzen duen uztailearen 13ko 25/98 Legean xedatutakoarekin bat datorrelarik, guzti hori inolako identifikaziorik gabe edota osasun arauak bete gabe aske dabilzan animaliak batu egingo direla adierazten duen 6/93 Legeari dagokionean, kontrolik gabeko abereak batzeagatiko tasa ezartzen du, honako Ordenantza Fiskalaren aginduei jarraituz. Hauxe da Ordenantza.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, tasak ezarri eta eskatuko ditu inolako identifikaziorik gabe edota identifikazio ofiziala izan arren une bakoitzean indarrean diren osasun arauak betetzen ez dituztela udalerrian zehar aske dabilzan kontrolik gabeko abereak batzeagatik.

2. artikulua

Ordenantza udalerriko lurralde osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Zerga egitatea, inolako identifikaziorik gabe edota identifikazio ofiziala izan arren une bakoitzean indarrean diren osasun arauak betetzen ez dituztela udalerrian aske dabilzan kontrolik gabeko abereak Udalak benetan batzeak egiten du, bai batze hori eskatua izan delako, bai kontrolik gabeko abereen arduradunek zeharka eginiko egintzek edota hutsek horretara bultzatu dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1.- Subjektu pasiboak, zergadunak diren adinean, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34 artikulua arabera udalerrian kontrolik gabeko abereak batzeko zerbitzuak mesedetuak edo kaltetuak gertatzen diren pertsona partikularrak nahiz erakundeak dira.

2.- Kontrolik gabeko abereak batzeagatik ezarritako tasetan zergadunaren ordezkotzat joko dira aipatzen diren abereen jabeak; hauek, dagokien kasuan, kuotak onuradun bakoitzari ezarri ahal izango dizkiote.

5. artikulua

Tasak, beren egintzak edota hutsegiteak direla tarteko, kontrolik gabeko abereak batu beharra sortu duten partikulek ordainduak izango dira.

IV. SALBUESPENAK, BEHERAPENAK ETA ONURAK

6. artikulua

Salbuespenak edo bestelako zerga onurak, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera egingo dira.

V. ZERGA OINARRIA

7. artikulua



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Zerga oinarria kontrolik gabeko abereak batzean ageri den buru bakoitza da, eranskinean datozen terminoetan.

VI. KUOTA

8. artikulua

1.- Zergaren kuota Eranskinean ezarritakoaren arabera onartutako tarifak batera ezartetik ateratzen den zenbatekoa izango da.

2.- Kontrolik gabeko abereak batzeak tokiko heri jabetzaren hondamena edo kaltea dakarrenean, onuradunak, ordaindu beharko duen tasaren kaltetan izan gabe, berreraikuntza edo konponketa gastuei dagokien guztiko kostua ordaindu beharra eta zenbatekoa aurretiaz jarri beharra izango du.

3.- Kalteak konponezinak direnean, Udalak kalte-ordaina jasoko du hondatutako ondarearen balioa adinekoa den zenbatekoan edota egindako kalteen zenbatekoan.

Udalak ezin izango ditu, osorik ezta zatika ere, aurreko lerroetan aipatzen diren kalte-ordainak edo itzultzeak barkatu.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua

Tasa kontrolik gabeko abereak batzen direnean sortuko da.

VIII. LIKIDAZIOAK ETA SARRERA

10. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko zaio, Eranskinean ordainarazpen bakoitzerako agertzen diren arau berezien arabera.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua

Ordenantza honek araupetutako Tasen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagozkien zer guztietan, eta, baita ere, zerga-hausteen sailkapenean eta kasu bakoitzean ezartzekoak diren zigorren zehazpenean, Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Udalak Ordenantza hau, Eranskina barne, 2000ko abuztuaren 29an egindako Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean. Aldatu zen lehenengoz, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran. Bigarrenez, 2002ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran. Hirugarrenez, 2004ko urriaren 13an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran. Laugarrenez, 2005eko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2005eko abenduaren 23an. Bosgarrenez, 2006ko irailaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2006ko azaroaren 21ean. Seigarrenez, 2008ko urriaren 17an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2008ko abenduaren 4an.

Aldaketa hau 2011ko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean, eta behin betiko 2011ko azaroaren 29an. 2012ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ERANSKINA

I-TARIFAK

Abereak batzeagatiko kostuak:

- Langileen Kostuak: 16,21 € ordu eta langileko.
- Joan-etorriak: 0,35 €/Km.
- Materiala (dardoak, jeringak): 81,04 €

Abereak mantentzeagatik:

- Azienda larria:
 - 1 burua: 32,41 €/eguneko.
 - 2 burua eta hurrengoak: 8,64 €/eguneko buruko.
- Azienda xehea:
 - 1 burua: 19,45 €/eguneko.
 - 2 burua eta hurrengoak: 5,41 €/eguneko buruko.